

Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

Ibaiari buruzko eduki sarea

Oraingo honetan, eduki-sare bat osatzea proposatzen dugu, ikasleek dituzten aldez aurreko ideiak ezagutzeko eta gaiari buruzko lan-proiektu baten gidoia egiten laguntzeko.

Eduki-sareak gaiari buruzko edukiak antolatzen, erlazionatzeko, finkatzeko eta horietaz hausnartzeko aukera ematen du; tresna ezin hobea da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasgeletan.

SARRERA

• Hasteko, Inguru-inguru bildumako ipuin hauetako batzuk kontatu ditzaiegu, biribilean jarrita:

Egun normal bat amonaren baserrian (1. zenbakia)

ISBN 84-9746-004-9

Zubi misteriosuan (5. zenbakia)

ISBN 84-9746-003-0

• Begiak itxita, ibai bat imajinatzen eskatuko diegu: ezagutzen duten edozein, txangoren batean bisitatu dutena, beren herriko edo hiriko, edo telebistan zein pelikula batean ikusi dutena. Ondoren, gaiari buruz ditugun aldez aurreko ezagutzak elkarri adieraziko dizkiogu. Baina, ikertzen ari garenez eta gehiago jakin nahi dugunez, gaiari buruzko lan bat egingo dugu.

• Etxetik argazkiak, marrazkiak, irudiak, jostailuak, panpinak, materialak edo ibai batean egon edo aurki daitezkeen materialak ekartzera animatuko ditugu. Ikaskide guztien artean gure ibaiaren horma-irudi handia osatuko dugu.

HELBURUAK

Ingurune fisikoa ikertzea eta bere elementu batzuen ezaugarriak identifikatzea.

LANDUTAKO GAITASUNAK

- Ikasten ikastea
- Hizkuntza-komunikazioa



Ekintza

Lehen fasea: zer dakigu ibaiaz?

• Lehenbizi, ibaiari buruz dakizkigun gauza guztien zerrenda egin eta ekarri ditugun gauza guztiak ezarriko ditugu. Ondoren, zerrenda orri handi batera eramango dugu, mapa bat balitz bezala, eta izenburua jarriko dugu horma-irudiaren goialdean.

Aldez aurreko ideiak sustatzeko era erraza galdetako gidatua egitea da. Ikasleei honelako kontsigna bat emango diegu: "Ibaiari buruz burutzen zaizkigun galdera guztiak esango ditugu".

- Zer da? Nolako da? Nondik dator, nora doa? Zer gauza eta izaki ditu? Zer zarata entzun ditzaiegu? Zer kolore ditu?
- Non dago? Nola hel gaitzek? Nor bizi da? Zer dago handik hurbil? Zer egin daiteke hor?
- Nolako zen lehen eta nola dago orain?
- Zertarako balio du, zer ematen digu?
- Zer arrisku ditu? Nola zaindu dezakegu?

• Erlazionatuta daudenak multzo berean sailkatuko ditugu, kolore bereko pegatina jarritz edo esandako esaldiak, gauzakiak edo irudiak koloretako errotuladorez azpimarratuz. Irakasleak ozenki irakurri eta ikasleak ados jarriko dira zer pegatina aukeratu, non kokatu eta abar erabakitzen. Oinarritzko kontzeptuak zirkulu batean sartuko ditugu eta hortik irtengo dira menpeko gainerako ideiak. Horrela, mapa kontzeptual handi bat osatuko dugu.

• Eduki-sarea edo -mapa amaitutakoan, informazioa guztien esku egotea lortuko dugu. Horrela, begirada batez kontsultatu ahal izango dugu. Informazioa antolatuta egongo da eta barneratzeko erraza izango da.

• Eduki-sareak ibaiari buruz dakiguna islatuko du, eta gaiaren hasierako ebaluazioa izango da. Ez da izango azken mapa, baina bigarren faseari ekiteko aukera emango digu.

Bigarren fasea: zer jakin nahi dugu ibaiaz?

Gure sarea ez dakigunaz osatzeko, ikertu egin behar dugu. Hau da, informazioa bilatu behar dugu, hainbat bide erabiliz: liburategiak bisitatu, liburu, argazki, pelikula edo albumak bilatu, guk baino gehiago dakitenei galdetu edo ibaiari buruz hitz egingo dugun norbait gonbidatu.

Lanerako gidoia osatuko dugu eta, horretan, aldez aurretik ditugun kontzeptuak eta sortu zaizkigun galderen erantzunak idatziko ditugu.


Horretarako, bikoteka edo talde txikietan jardungo dugu eta zereginak banatu egingo ditugu, ibaiaren behin betiko sarea sortzeko.

Azken fasea

Eduki-sare hori ikasgelan jarriko dugu ikusgai eta beste batzuegandik (ikasle handiagoak, aldameneko ikasgela, familiak eta abar) ikasitakoa ahoz adierazteko lagungarri izango da.

Iturria:

Margarida Falgás Isern. (1999)
Los mapas conceptuales en el parvulario:
descripción de una experiencia.
Aula de Innovación Educativa aldizkaria, 78



Zer dakigu?

LEHEN
garbi

ORAIN
Zikin, bita,
kolore arraroak,
presa

GAUZAK
Herria, zubi,
erreta, parkea

NOR BIZI

Landareak, belarria,
loreak, arbolak
Animaliak, arraina,
akatea, txoria, tximeleta,
arreta
Aroak

Ibaia

Nola dago?

Zer dago?

Nola zaindu?

Zer egiten dugu?

Nolako da?

Zer jakin nahi dugu?

Aseatu eta ez
zikindu
Buzkikatu
Zaindu natura

Arrantza,
jolasak edan
Bainatzea

>Koloreak, soinak, usaina
>Ikasleak, ibaiaren, hondoa,
korrontea
>Ennea, txuria, ur
emaria
>Bazterrak